



Eman hegoak euskarari



Txekhov eta biok

Ez zela ezer gertatzen... Denetarik gertatzen da, eta oso baliabide gutxirekin

ARITZ GORROTXATEGI

Gaztetan irakurzaletzen ari nintzenean, Txekhoven ipuin-bilduma bat heldu zen nire eskuetara. Erdaraz idatzia. Oker ez banago, Sopena argitaletxekoa: 'Gereziondoen lorategia eta beste lan batzuk'. 18-19 urte izango nituen, eta garai hartan, ipuingintzari dagokionez, Poe, Cortazar, Borges, Kafka eta abar ezagutzen ari nintzen. Nola ahaztu, adibidez, Cortazarren 'Reunión y otros relatos' en azal gogor eta marroiko edizio hura, Seix Barral argitaletxearena. Huraxe zen orduan gehien erakartzen ninduen literatura mota, amaieran ezusteko edo kolpe handi bat zekarrena sabelean ezkatatuta. Denetarik irakurtzen nuen artean, jakin-minak eta idazleak literaturan zuen sonak bultzatuta. Hala

ekin nion Txekhovi, eta aitor dut lehen irakurketa hartan dezepionatu egin ninduela. «Ez da ezer gertatzen eta!», esaten nion neure buruari. Salbuespenen bat edo beste kenduta, 'Fraide beltza' edo 'Seigarren pabilioia', gainerako ipuin gehientsuenak graziarik gabeak begitandu zitzaizkidan. Gehiago gustatu zitzaidan haren antzerkia, baina misterio bat iruditu zitzaidan idazle hark zuen oihartzuna. Beste hainbeste gertatu zitzaidan une hartan haren oinordekotzat jo daitekeen Raymond Carverren 'Katedrala' rekin.

Urte batzuk geroago, berriz ekin nion Txekhov irakurtzeari. Ordurako, etxeko apalategian nituen Edhasaren 'Musua eta beste ipuin batzuk', aukerazko liburuen azokan erositako

'Ahaztutako Rusia' (Colección Novela y Cuentos argitaletxekoa, 1967ko edizioa) eta Literatura Unibertsalaren barruan Xabier Mendiguren Bereziarturen itzulpenean Ibaizabalek ateratako Txekhoven 'Ipuinak'. Tematuta nengoen egile errusiar harekin. Artean izugarri gozatua nuen Dostoievski, Gogol eta Tolstoirekin, eta, bigarren aukera bat eman behar niola iritzita, berriro hartu nuen eskutan. Bigarren irakurketa horretan gauzak aldatzen hasi ziren, Heraklitoren ibaiako urekin bezala. Dagoeneko ni ez nintzen gazte sasoi hartako irakurle hura. Nire gustuak aldatzen hasiak ziren. Nahiz eta ipuin batzuk oraindik gatzgabeak iruditu, beste batzuk, al-diz, zoragarriak iruditu zitzaizkidan. Hasia nintzen

Txekhovekin adiskidetzen, hasia nintzen ulertzen zergatik josten zuten ipuingintzaren maisutzat. Ondoren, erreskadan irentsi nituen Carver edo Munro bezalakoak, eta beste begi batzuekin ikusten hasi nintzen egile haiek. Gaztetan interes handirik eragin ez zidaten pertsonaia eta egoera ustez arrunt haien atzean, bizitzari eta gizakiari buruzko jakinduria bare eta errukior bat hauteman nuen. Eta hori dena umoreari eta ironiari uko egin gabe. Neurri handi batean, Txekhovena bezalako unibertso baten tristura baiko-rran blaitzeko eta zipriztintzeko, irakurleak bizi esperientzia behar du, begirada gazi-gozoa.

Orain urte gutxi, Páginas de Espuma argitaletxeak Txekhoven ipuin guztiak atera zituen gaztelaraz lau liburukitan. Bai ipuin motzak bai narrazio luzeagoak, baita nobela laburrak ere. Lau liburukiak erosi, eta irakurriak nituen zenbait ipuin berrirakurtzen hasi nintzen, baita irakurri gabeko beste zenbait ezagutzen ere. «Ez zela ezer gertatzen... Denetarik gertatzen

da, eta oso baliabide gutxirekin», pentsatu nuen orain-goan. Miseria morala, maitasuna, koldarkeria, harrokeria, bostere-gehiegikeriak, apaltasuna, itxurakeria... Garai bertsuan, Poeren ipuinak berrirakurri nituen berriz, eta erori egin zitzaizkidan asko, artifizio handia ikusten nien. Esan bezala, dagoeneko ez nintzen orduko bera.

Duela aste pare bat, eskuetara heldu zait Elkar argitaletxeak kaleratu duen Txekhoven '31 ipuin', Iker Sancho Insaustik itzuliak. Itzultzaileak idazle errusiarraren literatura-ibilbidetaren hiru etapak barnebildu ditu liburuan. Lehen urteetan eta izengoitiarekin argitara emandako hoge ipuin; heldutasunera jauzian, 1886-1893 bitarte, idatzitako beste zazpi; eta Sakhalin uhartearen egonaldia ondotik, Tolstairen espiritualtasun aszetikoaren aurka errebelatu ostean, idatzitako beste lau. Ezaguna da tuberkulosiak jota hil zela Txekhov bere onenean, 44 urterekin. Bitxia bada ere, umorearen eta tristuraren maisu izan zen aldi berean.

Euskal literaturaren bideak

PALOMA RODRÍGUEZ MIÑAMBRES

Norberak gogoko dituen afera eta gogoe-tak (filiak eta fobiak, ezinbestean) lantzeko aukera paregabea ematen du saiakerak. Idazle askok egitura hori hautatzen dute, ahalbidetzen baitie literatur kritiko eta sortzaile paperen arteko dualitatea arakatzea, testuez haratago behatuz, haien muinak urratuz.

Azken urteotan Irati Jimenez genero horretan murgildu egin dela dirudi; iaz Unamuno Saria eskuratu zuen Harkaitz Canoren lan baten sorkuntzaren gakoak aztertzen zituen saiakera batekin. Oraingoan, bere gaitasuna demostratzen du euskal literaturaren sistemaren gaineko hausnarketan. Galdera pertinenteak egin eta erantzun zintzoak eskaintzen ditu gaur egungo egoera haztakatu nahian, baliozko interpretazioak mahai gaineratuz.

Euskal panorama literarioaren analisia lau ataletan banatu-

ta, bere bizipenez, literatura on eta txarraz -kalitatea, prestigioa, salduena zer den, tartean- edo aldameneko literaturerikiko hartu-emanen dihardu eta ez da beldur euskal literaturaren hutsuneak seinatlatzean (irakurleen galera ez onartzea, besteak beste) edo literatur kritikoen lana kolokan jartzean. Konponbideak ere adierazten ditu: berotasuna, literatur eragile guztion inplikazioa, askatasunez idaztea, kooperatibismoa, irudimena, feminismoa, umorea.

Tonuari dagokionez, arreta ematen digu Jimenezek bere buruarekin eratzten duen elkarrizketa arin eta informalak -pertsonala oso, saiakeran ohi den legez-, irakurleoi kolokialtasun hori erakargarri bezain entretenigarri suertatuz. Gainera, nabarmena da gaien artean jauzi egiteko abildadea, ustekabeko loturak agerian utziz.



BEGIAK ZABALDUKO ZAIZKIZUE IRATI JIMENEZ
Elkar. 284 orr.
21 euro

Euskal literaturaren izaerari begira, liburu zinez interesgarria aurkezten digu Jimenezek, literaturarekiko bokazioa eta maitasuna islatzen dituena, baita konpromisoa ere. Izan ere, zer pentsatu ematen du literatura-sistemaren funtzionamendu, eragin eta sormenari buruz.

Famatua zara?

ARANTXA URRETABIZKAIA



Eskolaz eskola, haur eta gaztetxoekin biltzen den idazle batek kontaktu zidan duela gutxi gaurko gizartearen argazki esanguratsua izan daitekeen zerbait. Idazle horrek literaturaz jardun behar du eskola batera doanean, liburu zehatz batez edo, oro har, bizitza kontatzeko moduez. Irakurketa sustatzea du helburu eta, agian, etorkizunean idazle izango den norbaiten ametsa hauspotzea.

Kontatu zidan heltzen dela egun horretan suertatu zaion eskolara, pribatu, publiko, nahiz mantenu erdikoa eta haurrek egiten dioten lehen galdera dela famatua ote den, irrikaz galdetu ere. Zu famatua zara? Galdetzen omen diote liburuaren sinadura eskatu aurretik, begiak distiratsu, fama birus kutsakor bat balitz bezala.

Tira, bai, haurrak dira, azalekoa da errealitateari buruz duten irudia, muga-

tua guztiz, pentsa dezakete euskal idazle batek sekulako fama lor dezakeela idatzitako liburuen bitartez, futbolari batena- ren pareko edo. Ez da hori deigarriena niretzat. Deigarriena da fama helburu bat iruditzen zaiela, famatuak izan nahi dutela, zertan edo zeri esker ez badakite ere.

Nesken kasuan horrek badu alde onik. Esan nahi du ez dutela aurreko belaunaldikoek jaso genuen agindua jaso: ez nabarmendu, esaten zion guraso askok alabari, diskrezioa ondo bizitzeko ezinbesteko baldintza balitz bezala. Emakumeontzat, noski. Ausardia irakasten zitzaien mutilei, diskrezioa neskoiei. Ekin, ausartu, mutilentzat, ez nabarmendu, neskentzat, ederregia izatea ere arrisku-tsua izan zitekeelako.

Mutilei zuzendutako mezua ez da apenas aldatu, neskena, dirudienez, bai. Famatua izatea nabarmentzeko modu bat da. Zentzu horretan, kontrako mezua da neskek jasotzen dutena: nabarmendu zaitez, izan zaitez famatua, unetxo batez besterik ez bada ere.

Famak izan dezake botereren bat, baina benetako boteretsuak ez dira famatuenak izaten.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Ametz Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

3 M Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

4 Izurdeen aurreko bizitza

Kirmen Uribe. Susa

EZ FIKZIOA

1 31 ipuin

Aanton Txekhov. Elkar

2 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

3 Bestealdean

Jaione Dorai/Ernesto Prat. Txalaparta

4 Eman zesarri zesarrena

Jose Iriarte. Intxorta